

Indarkeria sexistaren aurkako Nazioarteko eguna

25

AZAROAK

**Emakume eta nesken
aurkako indarkeria
amaitzea denon
ardura da**

**Bortizkeriarik
txikiena izanda ere,
ez onartu**

Hezkidetzeta da bidea

STEE-EILAS



Irakasleentzako jarraibideak:

- Jarduerarako proposamenen jarraibideak alda daitezke irakaslearen irizpidez, taldearen ezaugarrien arabera (ideien zaparrada, taldeka pentsatzea, bikoteka, banaka) Ondorioak ziurtatzeko beti guztion artean egitea komeni da.
- Jarduerak egin baino lehen kontzeptu batzuk argitzea komeniko litzateke.
- Malgutasuna: irakasleak ikasleen mailari egokitu beharko dizkio, hizkuntza, istorioak eta jarduerarako proposamenak aldatuz.
- Ez dira gutxietsi edo arbuiatu behar banaka egiten dituzten ekarpenak, ikasleek benetan sentitzen dutena adierazten jarrai dezaten.
- Egokia izan daiteke ikasleek ondorioak koadernoetan idatziz jasotzea edo txarteletan antolatzea.

Zergatik oroitzen da egun honetan Emakumearekiko Indarkeriaren kontrako Nazioarteko eguna?

Emakumeekiko indarkeria gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunean oinarritzen den fenomeno da, oso aspaldidanik datorrena. Nazio Batuen Erakundearen Asanblada Nagusiak, 1999an, Emakumearekiko Indarkeriaren kontrako Nazioarteko eguna deklaratu zuen azaroaren 25a. Emakumeen eskubideen aldeko ekintzaileek egun hori deklaratu zuten indarkeriaren kontrako eguna 1981eko uztailetik, Bogotan (Colombia) burutu ziren Karibeko eta Hegoamerikako 1. topaketa feministak egin zirenetik.

Azaroaren 25a aukeratu zen Mirabal ahizpen hilketa oroitzeko. Mirabal ahizpak Dominikar Errepublikako hiru ekintzaile politiko ziren eta 1960ko azaroaren 25ean Rafael Trujillo diktadorearen poliziak bortizki hil zituen.

Egun hau oroitzenean ez gara arazoaren muinera iritsiko, baina saiatuko gara fenomeno honek merezi duen erantzun soziala eta instituzionala izateko behar den gizartearen kontzientziatze eta sentsibilizazioa sortzen.

Errealitatea etxean

“ Indarkeria ez da naturala. Gizartearen baitan ikasten da eta gizartearen bitartez irakasten da”

Emakumeen aurkako indarkeria orokortutako jokaera da. Gizarte mota guztietan, kultura guztietan eta klase sozial guztietan dago. Etxean, kalean, lanean; bake garaian eta gerra garaian... Gure gizarteak jasaten duen jokaera da, bai etxean baita lanean ere, gizonak emakumearekiko duen ustezko nagusitasunaren izenean beti ere.

Indarkeria mota hau ikusezina da eta orain dela urte gutxi hasi gara emakumearen askatasun eta duintasunaren kontrako atentatutzat jotzen.

Emakumeen kontrako indarkeriari buruz ari garenean, GENERO INDARKERIAri buruz ari gara eta kulturaren garrantzia azpimarratu nahi dugu; izan ere, argi utzi behar da genero indarkeria gizarteak eraiki duela eta ez dela naturak berez duen ezaugarria. Kontzeptu honen baitan, emakume izateagatik soilik jasaten diren tratatu txar psikologikoak, esplotazio sexualak eta eraso fisikoak koka ditzakegu, besteak beste.

Honelako ekintzen aurrean, askotan, emakumeek ez dute jakiten nola erantzun; baina, gaur egun, gero eta handiagoak eta gehiago dira erantzun eskuzabalak, elkartasunezko mezuak eta jokaera arduratsuak. Jokaera hauek, hain zuzen ere, harreman aberatsak sortzen dituzte eta emakumeak ardatz dituen bake kultura eraikitzen dute.

Binaka edo talde txikitan lantzeko.

- *“oroitzapen egin / oroitu” eta “ospatu”* kontzeptuak bereiztu.
- Gure gertuko inguruan zein mundu mailan emakumeen kontrako bortizkeriari buruzko prentsa-artikuluak bilatu.
- Emakumeek jasotzen dituzten bortizkeria mota desberdinei buruzko informazioa bilatu.
- Albiste desberdinen hautaketa egin; lurraldeka antolatu eta lurralde horietako emakumeen egoera ikertu.
- Berriak emakumeek jasotako indarkeria motaren arabera antolatu.
- Taldeka indarkeria mota desberdinak agertzen diren *“salaketa horma-irudi”* bat egin. Erauzteko alternatiba desberdinak proposatu.
 - Horma-irudi desberdinak komunean jarri eta indarkeria erauzteko proposatutako alternatibak komentatu.
 - Horma-irudietan agertutako berriei buruzko estatistika desberdinak ere egin daitezke, adibidez, indarkeria mota, erasoak jasan duten emakumeen adina...

USTEAK APURTUZ

Banaka beheko taulan agertzen zaizkizuen esaldiei buruzko iritzia eman beharko duzue. Jar ezazue X (E) laukian egiaztapena egia dela uste baduzue eta (G) laukian egiaztapena gezurra dela uste baduzue. Ondoren, zuen irakasleak erantzunak galdetuko dizkizue eta denon artean hitz egingo duzue.

	E	G
1. Bere bikoteari tratu txarrak ematen dizkioten gizonak zoratuta daude.		
2. Tratu txarrak jasaten dituen emakumeak ez badu bere bikotea uzten, horrelako tratua jasatea gustatzen zaiola esan nahi du.		
3. Gizonek emakumeak jipoitzen dituzte, azken horiek zerbait txarra egin dutelako.		
4. Gauez bakarrik ibiltzen diren emakumeek gizonak probokatzen dituzte.		
5. Arropa estua, eskoteak eta gona motzak erabiltzen dituzten emakumeak gizonekin zerbait nahi dutelako janzten dira horrela.		
6. Bere burua defendatzen duen emakumea ezin da bortxatua izan. Ez badu defendatzen bortxatua izatea gustatzen zaionaren seinale da.		
7. Bere bikotea gaizki tratatzen duten gizonak pobreak dira baita drogazaleak eta mozkortiak ere.		
8. Emakumeen kontrako indarkeria kasu bakar batzutan izaten da, besterik ez. Hedabideetan publizitate handia ematean askotan gertatzen dela ematen du.		
9. Familia barruan gertatzen den indarkeria familia horri dagokio bakarrik, inork ez luke salatu behar, inor ez litzateke tartean sartu behar.		

GIZARTEA ALDARAZTEKO PROPOSAMENAK

Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzea guztion lana da. Era askotan egin dezakegu, adibidez:

1. **Familia mailan:** gizonek emakumeekiko dituzten bazterkeria, mendekotasun eta baliogabetze jarrerak eta portaerak ez errepikatuz.
2. **Hedabide mailan:** alde batetik, haien programazioan emakumeen irudi estereotipatuak eta programa sexistak kentzeko exijituz; eta bestetik, berdintasuna aldarrikatzen duten baloreak eta jarrera ez bortitzak sartuz.
3. **Lege mailan:** Onartutako Indarkeriaren Kontrako eta Berdintasunerako Legeak betearaziz, emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, zigortzeko eta erauzteko.
4. **Hezkuntza mailan:**
 - a) Gure komunikazio erak zainduz, gure gogoeta eta hizkeratik sexismoa ekiditeko.
 - b) Mutilek ez ditzatela neskak lotsarazi,.....
 - c)
 - d)
 - e)
 - f)
 - g)
 - h)
 - i)

Zer nolako aldaketak proposatzen dituzue zuen inguruan ez dadin egon emakume eta nesken aurkako indarkeriarik?

BADAKIZU ZER DEN TRATU TXARRA?

Tratu txar fisikoa

Bultzatzea, iletik tira egitea, masailekoak ematea, ziztatzea, heltzea, txistua botatzea, ostikoz jotzea, hezurak haustea, ubelduak eragitea, paretan kontra botatzea, gauzak jaurtikitzea, abortuak eragitea, armak erabiltzea, erretzea, hiltzea.

Tratu txar soziala

Beste pertsonen aurrean tratu txar psikologikoak eragitea, kanpo harremanak (familia, lagunak, telefono deiak) kontrolatzea, familia, lagunarte edo gizarte-jardueretan egotea galaraztea edo derrigor egonaraztea, bere aurrean beste emakume batekin nabarmenkeriaz lakrikunkeriatan ibiltzea, lan egin edo ikastea galaraztea, seme-alaben ardura ez hartzea...

Jazarpen sexuala

Lantokia, eskola edo antzeko eremuan, nagusitasunaz edo kidesunaz jokatzuz eta laneko edo ikasketako baldintzetan eraginez, biktimak desio ez dituen eta iraingarritzat dituen sexu-edukiko hitz, keinu edo jarrerak adieraztea.

Tratu txar psikologikoa

Aipu gutxiesleak egitea, oihukatzea, iraintzea, gutxiestea, laidoak eragitea, indarkeriaz mehatxatzea, biktima behin eta berriz ero, tuntún edo ezgauzatzat jotzea, seme-alaben aurrean agintea kentzea, atea eta jotzea, gustukoak dituen programak ikusten ez uztea, haren gauzak eta tiraderak ikuskatzea, haren gutunak ireki eta telefonozko elkarrizketak entzutea.

Tratu txar ekonomikoa

Baliabide ekonomikoak bere baimenik gabe kontrolatzea, kreditu-txartela ez uztea, ondasunak saltzera derrigortzea, dirua administratzeari buruzko erabakietan parte hartzen ez uztea.

Abusu sexuala

Biktimaren onarpenik gabe eta behartze, mehatxu edo txantaje bidez indarkeria edo beldurrarazte gabe ukitze edo antzeko harreman sexualak eragitea.

Eraso sexuala

Indarkeria edo beldurraraztea erabiliz harreman sexualak eragitea.

ADI EGON

ERASO SEXISTA BATEN BERRRI IZAN ETA ZEIN DA GURE JARRERA IKASTEHEAN?



1. Kezkatzen gara eta informazio osoa biltzen saiatzen gara.
2. Erasoa jaso duenak esateko duena entzuten dugu.
3. Erasoa jaso duenak kontatzen dituen gertakizunetikiko errua sentimendua ez izateko. ahaleginak egiten ditugu.
4. Erasoa salatzen dugu eta erasotzen duenari erantzukizuna eskatzen diogu.
5. Gertatutakoari epe laburrera irtenbideak topatzen ditugu.
6. Epe luzera irtenbideak. topatzen ditugu , aurrea hartzeko neurriak landuz.
7. Bai erasoa jasan duenarekin bai erasotzailearekin hartzen diren neurriak hezitzaileak izan daitezen lan egiten da.
8. Inplikatuena familiekin batera lan egiten da.

1. Ez dugu ezer egiten informazio nahikorik ez dagoela argudiatuz.
2. Zalantzan jartzen dugu. Erasoa jaso duenak, printzipioz, ez digu konfiantza ematen. Suposatzen dugu erasoa jasotzeko zerbait egin duela. Beren irudimenaren ondorioak izan daitezkeela pentsatzen dugu.
3. Erasoa egin duena ulertu ahal izateko, milaka azalpen eta arrazoi bilatzen ditugu.
4. Ez dugu salatzen hainbat arrazoiengatik:
 - ✓ Besteen bizitza pribatua sartzeko da.
 - ✓ Salatzea ez da gure kontua, beste batzuek egin dezatela.
 - ✓ Konpromisoari beldurra, gehiagotan gerta daitezke eta.
5. Ez dakigu zer egin baina ez dugu ezta informaziorik jasotzeko ahaleginak egiten.
6. Ez dira hainbeste ematen. Eta ematekotan arazo familiarrak eta sozialak dituztelako dira eta guk horren aurrean ezin dugu ezer egin.

MANIFESTUA

Gaur azaroaren 25a, eskolan **INDARKERIA SEXISTAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA** oroitu nahi dugu. Alde batetik, emakumeek eta neskek pairatzen dituzten indarkeria mota guztiak salatuz, eta bestetik indarkeriarik gerta ez dadin lan egiteko konpromisoa hartuz.

Hori dela eta, Eskola osoak zera aldarrikatu nahi du:

1. Emakume eta neska guztion eskubideak errespetatuko eta errespetaraziko ditugula.
2. Emakumeek jasotzen duten edozein indarkeriari, fisikoa zein psikikoa, aurre egingo diogula.
3. Elkartasunean eta errespetuan oinarritzen diren harremanak bultzatuko ditugula.
4. Elkarrizketan eta laguntasunean oinarritutako ereu eta mezuak erabiliko ditugula.

Genero indarkeriari aurre egiteko baliabideen gida

Hona hemen baliabide batzuk hausnarketa egiteko edo gela barruan lantzeko:

- ✓ **“Genero bortizkeria ekiditeko jarduera didaktikoak”** Irakasleentzako materiala, geletan egiteko proposamenekin. STEE-EILASek egokitua.
- ✓ **“Ezkontidearekiko tratu txarra. Zer da tratu txarra? Motak”**. Emakundek argitaratua, 2002.urteko datuekin, aldizkarietako berriekin...
- ✓ **“Prevenir la violencia. Una cuestión de cambio de actitud”**, 1997 Instituto de la Mujer

Bigarren hezkuntzarako materiala:

- ✓ **“Las mil caras de la violencia contra las mujeres”**, 2000ko azaroan. DBHko 2.ziklo eta hurrengo kurtsoetarako lan teoriko eta lanerako proposamen batzuk.
- ✓ **“Violencia de género y currículo”** F.Barragán, Ediciones Aljibe, 2001. DBHrakoak.
- ✓ **“Tratu txarrari aurre hartuz”**, N. Zaitegi, M.Amigo, Emakunde, 1995. DBHoko lanerako proposamen batzuk.
- ✓ **“Neskentzako gida: erasoak nola aurrekusi eta eurengandik babestu”**, M^aJose Urruzola, Maite Canal Editora 2003
- ✓ **“Materiales didácticos para la Prevención de Género”**- Helduentzako jarduera didaktikoa.

Lehen eta haur hezkuntzarako zuzenduta:

- ✓ **“Biolentzia sexualik gabeko bizikidetasun baterako Hezkuntza”** Hezkidetzako Seminarioek egindakoa, M^a Jose Urruzola Koordinatzailea.
- ✓ **“Derrigorrez musurik ez”** Marion Mebef, irudiak: Lydia Sandrock, Maite Canales argitaratzen du.

Web orriak edo Interneten miazteko tokiak:

- ✓ http://www.juntadeandalucia.es/averroes/publicaciones/violencia_genero.php3
- ✓ www.redfeminista.org (emakumeen kontrako bortizkeria)
- ✓ www.derechos.org/ddhh/mujer

Gaiari buruzko bideoak. Gasteizko Emakunden aurki daitezke:

- ✓ **“La guerra invisible”**. Genero bortizkeriari buruzkoa debatea. Elakarrizketa horretan bai parlamentariak, Emakumearen Institutuaren Zuzendariak eta Lorente medikuak parte hartzen dute. Signatura: 1011 V.
- ✓ **“Empezar de nuevo”**. Genero bortizkeriaren detekzio eta prebenzioari buruzko dokumentala, arazoa gainditu duten emakumeengan oinarrituta. Signatura: 969 V.

Zinema: “Te doy mis ojos”, Itziar Bollain

“Quiero ser como Beckham”, Gurinder Chadha

